

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

401/2016 Foru Agindua, urriaren 6koa, baimentzen duena Arantza de la Quintana Ibañez izendapena Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrien taldeko idazkari-kontuhartzai-learen lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko

Aldundiari 2016ko irailaren 27ko datarekin aurkeztutako idazki baten bidez, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrien taldeak eskatu zuen Arantza de la Quintana Ibañez izendatu zedila idazkari-kontuhartzai-learen lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko, titularra, M^a del Mar Arranz Olmos, Zanbranako Udaleko idazkariaren lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzen ari zelako, eta hori guztia abuztuaren 18ko 371/2016 Foru Aginduan egindako izendapenaz baliatuz.

Horren harira, adierazi behar da ezen, ALHAOn 2016ko uztailaren 27an (84. zk.) argitaratutako iragarki baten bidez, udalerrri taldeak hamar egun baliioduneko epea ezarri zuela gaikuntza nazionalako funtzionarioek behin-behineko izendapen eskaerak egin zitzaizkizaten, eta epe hori igarota, udal horrek baieztatu zuen ez zela eskaerarik aurkeztu.

Aldi berean, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrien taldeak ziurtatu du harremanetan jarri dela inguruko udaletako idazkariarekin, egiaztatzearen ba ote zitekeen haietakoren batek lanpostua betetzea aldi baterako lan metaketa bidez edo zerbitzu eginkizun bidez, eta ezinezkoa izan da bata zein bestea.

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioentzako gordetako lanpostuak betetzea arautzen duenak, 30.1 eta 34. artikuluetan xedatutakoa ikusita (biei ekainaren 27ko 834/2003 Errege Dekretuak emandako idazkera kontuan hartuta), toki korporazioek bitarteko funtzionario izendatzea proposatuko dute lanpostuari dagokion azpieskalan eta kategorian jarduteko eskatutako titulazioaren jabe den pertsona, baldin eta ezinezkoa bada lanpostuak betetzea, ez dagoelako inor 30., 31. eta 32. artikuluetan xedatutako prozedurengatik (aldi baterako izendapena, lan metaketa edo zerbitzu eginkizunak) toki korporazioetan funtzionario horientzat gordetako lanpostuak betetzeko.

Autonomia erkidegoko organo eskudunak izendatuko du pertsona hori, espedientean egiaztatatu ondoren ezinezkoa izan dela estatu osorako gaikuntza duen funtzionario batek betetzea.

Idazkari-kontuhartzai-le azpieskalarara sartzeko, eta horientzat dago gordeta aipatutako udalerritan 3. mailako gisa sailkatuta dagoen idazkari lanpostua (besteak beste, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrien taldea), nahitaezkoa da Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomian edo Aktuariotza eta Finantza Zientzietan lizentziaduna izatea.

Adierazi behar da foru aldundi honek ezin duela egun lanpostu horretarako estatu osorako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionariorik behin-behineko izendatu, ez baitu inor gaituta dagoenik eta izendatua izateko interesa duenik.

Era berean, goraxeago adierazitako moduan egiaztatatu da ez dela lan metaketa edo zerbitzu eginkizun bidez betetzerik izan.

Izendapena helburu, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrien taldea Herri Administrazioen Euskal Erakundearekin jarri zen harremanetan, azken horrek bere lan poltsan zituen pertsonak jakinaraz ziezazkion; eta horietatik Arantza de la Quintana Ibañezek, Zuzenbidean

lizentziadunak, onartu du bitarteko funtzionario eginkizunetan betetzea aipatutako udalerrri taldeko idazkari-kontuhartzaile lanpostua.

Horiek horrela, egoki jotzen da Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrrien taldeak egindako izendapen proposamena onartzea.

Arabako Foru Aldundia da izendapen hori egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskuduna, uztailearen 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bost.1 xedapen gehigarrian eta apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuarenaren, hiru.2 xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

Azaldutako guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arantza de la Quintana Ibáñez bitarteko funtzionario izendatzea, 2016ko urriaren 3tik aurrerako eraginarekin, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrrien taldearen idazkari lanpostua betetzeko.

Bigarrena. Lanpostu hori gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen bati esleitu arte izango du eragina izendapen horrek. Dena den, edozein unetan indargabetu ahal izango da bai Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrrien taldeak hala eskatu duelako bai hura kargutik kentzeko legezko arrazoiren bat dagoelako.

Hirugarrena. Izendapen horrek 2016ko urriaren 3tik aurrera du eragina, egun horretan hasi baitzen lanean lanpostu horretan Arantza de la Quintana Ibáñez.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udalerrrien taldeari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 6a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ